



**UPV/EHU-N EUSKARAZ IRAKASTEKO GAITASUN AGIRIKO PROBAK
(2013KO EKAINAREN 3A)**

1. ARIKETA: AUKERA ANITZEKO GALDERAK

Honako galdera hauetako bakoitzak lau erantzun ditu aukeran. Aukeratu ezazu erantzun zuzen eta egokiena, eta idatz ezazu amaieran (9. orrialdean) dagoen erantzun-taulan erantzun horri dagokion letra. Erantzun okerrengeatik ez da punturik kenduko.

1. Zein **baztertuko** zenuke?
 - a) Hain zen ipurterrea, non ez baitzen patxadaz inon egoten.
 - b) Hain zen ipurterrea, ez zen patxadaz inon egoten.
 - c) Ez zen patxadaz inon egoten, hain zen ipurterrea.
 - d) Hain zen ipurterrea, ezen ez zela patxadaz inon egoten.

2. *Gaur egungo krisia ez dugu herritar xumeok eragin; _____, guk ez dugu kaltea zertan ordaindu.*
 - a) hain zuzen ere
 - b) hala ere
 - c) izan ere
 - d) horrenbestez

3. Zein **baztertuko** zenuke?
 - a) Oposizioak gainditzekotan, orain ikasi behar duzue.
 - b) Oposizioak gaindituko badituzue, orain ikasi behar duzue.
 - c) Oposizioak gainditu nahi badituzue, orain ikasi behar duzue.
 - d) Oposizioak gaindituz gero, orain ikasi behar duzue.

4. *Jakinduria handiaren jabe izan nahi badute, irakur _____ filosofia-liburuak.*
 - a) dezatela
 - b) bezate
 - c) ditzatela
 - d) bitez

5. Zein aukeratuko zenuke?
 - a) Lau pertsoentzako janaria prestatu dut.
 - b) Lau pertsonentzako janaria prestatu dut.
 - c) Lau lagunentzako janaria prestatu dut.
 - d) Lau lagunarentzako janaria prestatu dut.

6. *Senar-emañte bananduak adostasun batera iritsi _____ zurrumurrua zabaldu da.*
 - a) direlakoaren
 - b) direlaren
 - c) direnaren
 - d) direlako

7. Aukeratu ezazu zuzena:
 - a) Ez dakit liburua irakurri duen.
 - b) Ez dakit liburua irakurri badu.
 - c) Ez dakit liburua irakurri duenik.
 - d) Ez dakit liburua irakurri baduen.



**UPV/EHU-N EUSKARAZ IRAKASTEKO GAITASUN AGIRIKO PROBAK
(2013KO EKAINAREN 3A)**

8. *Joan den hileko aldizkarietan agertu zen. Zeinetan diozu?*
- Joan den hilekoetan.
 - Joan den hilekoan.
 - Joan den hilerokoan.
 - Joan den hilekotan.
9. Zein da zuzena?
- Milioi bat langilek hiria geldituz zuten.
 - Milioi bat langilek hiria geldiarazi zuten.
 - Milioi batek langile hiria geldierazi zuten.
 - Milioi bat langilek hiriarik geldiarazi zioten.
10. *Zu konturatzerako hamaika lagun konturatuko dira. Nola esan daiteke beste era batera?*
- Denok bateratsu konturatuko zarete.
 - Lehenago konturatuko zara zu.
 - Zu bezain laster konturatuko dira besteak ere.
 - Jende asko konturatuko da zu baino lehen.
11. *Alargunduz geroztik, beltzez jantzita ibiltzen da. Honako hauetariko bat EZ da esanahi berekoa.*
- Alargundu zenez geroztik, beltzez jantzita ibiltzen da.
 - Alargundu denetik, beltzez jantzita ibiltzen da.
 - Alargundu eta gero, beltzez jantzita ibiltzen da.
 - Alarguntzerakoan, beltzez jantzita ibiltzen da.
12. _____ *herriko alkatetzara aurkeztuko zarena.*
- Baliteke
 - Badakit
 - Uste dut
 - Ez nago ziur
13. Zein da zuzena?
- Hori zerrenda batetik ateratu dut.
 - Hori zerrenda batetik ateratu dut.
 - Hori zerrenda batenganik ateratu dut.
 - Hori zerrenda batengandik ateratu dut.
14. *Bekokiko _____ odola _____ oraino.*
- zauria / zerion
 - zauriari / dario
 - zauriak / zirauen
 - zauritik / ari zen



**UPV/EHU-N EUSKARAZ IRAKASTEKO GAITASUN AGIRIKO PROBAK
(2013KO EKAINAREN 3A)**

15. *Liburua aurten argitaratuko duela zioten, ezta? _____ idazleak orrialde bat ere ez duela idatzzi!*
- Ba, kontua da
 - Ba, hara non
 - Ba, zer da kontua
 - Ba, kontuak kontu,
16. *Lehenengo eguneko istripuan lau _____ eta bi _____ _____ zituen.*
- Saihets hortz hautsi
 - Sahietz horts hautzi
 - Saihets ortz autsi
 - Sahietz orst autzi
17. Nola irakurtzen da 1895/02/27?
- Mila zortzirehun eta laurogeita hamabosteko otsailak 27
 - Mila zortzietan eta larogeita hamabostaren otsailaren 27a
 - Mila zortzietan eta laurogeita hamabosteko otsailaren 27a
 - Mila zortzirehun eta larogei eta hamabostaren otsailak 27
18. Nola idazten da esaera zahar hau?
- Zahar hitz, zuhur hitz.
 - Zaar itz, zuur itz.
 - Zaar hits, zuhur hits.
 - Zar its, zur its.
19. *Azkenean konturatu ziren barealdia laster _____*
- zeturrela.
 - zeturrenaz.
 - bazeturrela.
 - zeturrelaz.
20. Aukeratu ezazu zuzena: *Goiizaldeko ordu bata izan arren, argi asko daude piztuta _____ etxeetan.*
- honezkero
 - oraingoz
 - dagoeneko
 - oraindik
21. *Aspaldi daukat mutil hori begiz jota. Ez dit batere kasurik egiten, _____.*
- ordea
 - berriz
 - bainan
 - baizik



**UPV/EHU-N EUSKARAZ IRAKASTEKO GAITASUN AGIRIKO PROBAK
(2013KO EKAINAREN 3A)**

22. *Berandu iristen bazara, ez duzu izango _____.*
- autoa non uztekorik
 - autoa non uzteko lekurik
 - autoa non uztea
 - autoa non utzirik
23. Zein dago zuzen?
- Ez Dok Hiru bikoteak, gaur, 20:00etan, Bilboko Kafe Antzokian, *Lingua Nabajorum* antzezlana estreinatuko du.
 - Ez Dok Hiru Bikoteak, gaur, 20:00etan, Bilboko kafe antzokian, *Lingua Nabajorum* antzezlana estreinatuko du.
 - Ez dok hiru Bikoteak, gaur, 20:00etan, Bilboko Kafe antzokian, *lingua nabajorum* Antzezlana, estreinatuko du.
 - Ez dok Hiru bikoteak gaur, 20:00etan, Bilboko Kafe Antzokian “*lingua nabajorum*” Antzezlana estreinatuko du.
24. Zein esalditan daude komak zuzen jarrita?
- Berandu izan daiteke, bai, baina, entzun zuzendari jauna, gure eskaria.
 - Gure etxean ez dago, ez esnerik ez ogirik ez ezer.
 - Gasteizen, nik dakidala, 210.000 pertsona bizi dira, ez gehiago.
 - Liburua beranduago argitaratzea, argitaletxeak, erabaki zuen.
25. Nola adierazten dugu adiera bereziko hitza dela?
- Ertzainak tabernara sartu zirenean, bazterrera bota zuen *txokolate* puska.
 - Ertzainak tabernara sartu zirenean, bazterrera bota zuen “Txokolate” puska.
 - Ertzainak tabernara sartu zirenean, bazterrera bota zuen **txokolate** puska.
 - Ertzainak tabernara sartu zirenean, bazterrera bota zuen “txokolate” puska
26. *Ez al duzu ate-botsa entzun? Bai, _____ irten da.*
- bateren bat
 - edonor
 - edozein
 - baten bat
27. *Aita, bar _____ besoetan, nekatuta nago eta!*
- nauzu
 - ie zadazu
 - nazazu
 - nakizun
28. *Borroka anker hartan _____.*
- hil zioten elkarri
 - hil ziren elkar
 - elkarrekin hil zioten
 - elkar hil zuten



**UPV/EHU-N EUSKARAZ IRAKASTEKO GAITASUN AGIRIKO PROBAK
(2013KO EKAINAREN 3A)**

29. *Goizeko _____ arratsaldeko _____ ekin genion lanari, jo eta ke.*
- zazpiretatik / laurak arte
 - zazpietatik / lauataraino
 - zazpietatik / laurak arte
 - zazpitatik / lauretaraino
30. Zein da zuzena?
- Basokada bat olio bota behar zaio.
 - Olio bete basokada bat bota behar zaio.
 - Olioaren basokada bota behar zaio.
 - Olioko basokada bota behar zaio.
31. *Gure lankidea petralduta dago zuzendariarekin. Nola dago?*
- Adeitsu
 - Mesfidati
 - Erretxinduta
 - Tematuta
32. Zein dago multzotik kanpo? *Jertsea jantzi ezazu _____.*
- batekoz bestera
 - azpikoz gainera
 - alderik aldera
 - atzekoz aurrera
33. Zein da zuzena?
- Berandu dabiltz zure lagunak.
 - Berandu dabiltzate zure lagunak.
 - Berandu dabiltza zure lagunek.
 - Berandu dabiltza zure lagunak.
34. *Gizonari _____ aurpegia aldatu zitzaion eta _____ hasi zen.*
- bapatean deiadarka
 - bat-batean dei adarka
 - batbatean deihadarka
 - bat-batean deiadarka
35. Euskaltzaindiaren *Hiztegi Batuaren* arabera, zein hitz sorta dago zuzen idatzita?
- ebatsi, hozbera, saiatu, aiene
 - ilunbe, eskilara, aidanez, ahozpez
 - bijilatu, ekipaia, enbidia, ejertzizio
 - deihadar, enpadronatu, entrenadore, txorta
36. Hauetatik zein dago ONDO euskara batuan?
- Gazteiz
 - Iruña
 - Donosti
 - Bat ere ez



**UPV/EHU-N EUSKARAZ IRAKASTEKO GAITASUN AGIRIKO PROBAK
(2013KO EKAINAREN 3A)**

37. Zein dago ONDO?
- Udalgora bidaliko ditut eskaera-orriak.
 - Zenbat bale hil zituzten Ternuan?
 - Hemen ez; behelaldean duzu gehiago.
 - Enteratu naiz. Azkenean, banandu egingo zarete.
38. *Zer ordutan izango da ekitaldi hori?*
- Ordu biak eta laurdenetan.
 - Zazpirak eta laurdenean.
 - Seiak bost gutxietan.
 - Lau eta erdian.
39. Zein da zuzena?
- Karmengo jaiak izaten dira, adibidez, Zornotzan nahiz Ondarroan.
 - Begira aizu, guk ere, eskubide berberak ditugu.
 - Aldeak alde, egitasmu hori, da alderdi guztiek babesten dutena.
 - Kezkatuta daude, hainbat egoera, berrikuntza eta, aldaketa larriekin.
40. Zein da zuzena?
- Ume denboran (3-10 urte bitartean batez ere), lotura handia izaten dute andereñoarekin.
 - Parisko egotaldian (Sorbonan ikasten ari zela, harreman estua izan zuten elkarrekin).
 - Arestiren lan hori, *Harri eta Herri*, hasierakoa ez bezalakoa da: Maldan behera.
 - (*Godot-en zain*) da, beharbada, Samuel Becketen maisulanik ospetsuena.
41. Zein da zuzena?
- 1813ko abuztuaren 31n, Donostia txikitu zuten tropa espainiar, ingeles eta portugaldarrek.
 - 1813ko Abuztuaren 31n Donostia txikitu zuten tropa Espainiar, Ingeles eta Portugaldarrek.
 - 1.813ko Abuztuaren 31n Donostia txikitu zuten tropa Espainiar, ingeles eta portugaldarrek.
 - 1.813ko abuztuaren 31n Donostia txikitu zuten Tropa espainiar, ingeles eta portugaldarrek.
42. Zein dago ONDO euskara batuan?
- Ekiditzen
 - Jasoten
 - Irteten
 - Hezitzen
43. Zein dago ONDO?
- Elikadura osasungileari buruzko erakusketa batera joango gara.
 - Gaur, ikastolan, piratetara jolastuko dugu.
 - Zuzendari izendatu nautenetik, Peru nire mendetan dago.
 - Jende hori larriduraz izerditzen zen, geldirik zein ihesean.



**UPV/EHU-N EUSKARAZ IRAKASTEKO GAITASUN AGIRIKO PROBAK
(2013KO EKAINAREN 3A)**

44. Zein **baztertuko** zenuke? *Udalekuetan elkarrekin egon eta dena _____ nabi dugu.*
- gozatu
 - elkarbanatu
 - partekatu
 - erabili
45. Zein da EGOKIENA?
- Merkatalgo-ganbaran hitz egin beharreko auziak dira horiek.
 - Liburuko atal desberdinetan dauden argazkiak Vietnamgoak dira.
 - Dali lot dakiok kubismoari, eta berari ere laket zitzaion bera korronte horretan sailkatzea.
 - Alemanera eta ingelera ikasi beharko dituzte gure seme-alabek.
46. Zein dago ONDO? *Ingeniaritzako bi urte Italian _____ zituen.*
- amaitu
 - burutu
 - egin
 - bukatu
47. Zein multzotan dago tokiz kanpoko hitza?
- Jarri, eseri, jesarri
 - Kaiku, kikara, katilu
 - Uhal, hede, gerriko
 - Memelo, ergel, kontakatilu
48. Zer esan nahi du: *Arloteari emaiok arrautza, eskatuko dik zotza?*
- Pobretasuna ez da garbitasunaren etsai.
 - Eskuzabal jokatu behar da beti, ezer gorde gabe.
 - Horri konfiantza emanaz gero, damutu egingo zaizu.
 - Lagundu eskaleari, baina zerbait eskatu ordainean.
49. Aukera ezazu esaldi zuzena.
- Zenbat eta zorrozkiago konparatu bi lege horiek, gero eta zabalagoa dirudi bien arteko leize moralak.
 - Hainbat eta zorrozkiago konparatu bi lege horiek, orduan eta zabalagoa dirudi bien arteko leize moralak.
 - Zenbat eta zorrozkiago konparatu bi lege horiek, orduan eta zabalagoa dirudi bien arteko leize moralak.
 - Gero eta zorrozkiago konparatu bi lege horiek, hainbat eta zabalagoa dirudi bien arteko leize moralak.
50. *Talde horretakoak dotore askoak dira. Zer esan nahi du?*
- Talde horretako asko dotoreak dira.
 - Talde horretakoak asko dira, eta denak dotoreak.
 - Talde horretakoak oso dotoreak dira.
 - Talde horretakoak dotoreegiak dira.



Universidad Euskal Herriko
del País Vasco Unibertsitatea

EUSKARA ZERBITZUA

**UPV/EHU-N EUSKARAZ IRAKASTEKO GAITASUN AGIRIKO PROBAK
(2013KO EKAINAREN 3A)**



Universidad Euskal Herriko
del País Vasco Unibertsitatea

EUSKARA ZERBITZUA

**UPV/EHU-N EUSKARAZ IRAKASTEKO GAITASUN AGIRIKO PROBAK
(2013KO EKAINAREN 3A)**

ERANTZUN-TAULA

1	11	21	31	41
2	12	22	32	42
3	13	23	33	43
4	14	24	34	44
5	15	25	35	45
6	16	26	36	46
7	17	27	37	47
8	18	28	38	48
9	19	29	39	49
10	20	30	40	50



UPV/EHU-N EUSKARAZ IRAKASTEKO GAITASUN AGIRIKO PROBAK (2013KO EKAINAREN 3A)

2. ARIKETA: IRAKURRIAREN ULERMENA

Irakur itzazu ondoko orrietako hiru testuak. Testu bakoitzaren amaieran, hari buruzko galdera batzuk dituzu, aukeran erantzun batzuk dituztenak. Aukeratu ezazu galdera bakoitzeko erantzun zuzen bakarra eta adieraz ezazu amaieran (16. orrialdean) dagoen erantzun-taulan erantzun zuzenari dagokion letra. Ez da punturik kenduko erantzun okerrenengatik.

1. TESTUA

Pablito

Mundua lepoa gorantz bihurtuta behetik begiratzeak, apaltasuna dakar berez. Baimena eskatuz bezala bizi da txikia, batzuetan umil antzera eta suminez besteetan, baina oinarrian beti dago munduari diagonalean so egiteak sorrarazten duen bertigoa, zorabioa. Txikiak badaki zer den beste txiki guztien zaku berean bizitzea, zakuaren itxitasun derrigortuan gatibu egotea. Eta horregatik beste txikiak txeraz tratatzen ditu, elkartasun etsituaren begirada eztiarekin. Bi bider egin behar ditu txikiak gauzak, lehena egitearren eta bestea erakustearren. Ulertua izateko eskuak birritan mugitu behar dituen mutuak bezala, txikiak bere gaitasuna oihukatu behar du, txikiaren berezkotasuna ezina dela uste baitu munduak.

Pablito aurpegia minez zimurtua, lurlean espantuka ikusi nuenean, hau guztia oroitu nuen. Inork ez du inoiz Pablito txapeldun baten gisan ikusi, eta izenak inork uste baino garrantzi handiagoa dauka. Akaso Pablo izan balitz, dimnutiboaren karga zikiratzailerik gabe. Baina Pablito da, eta berdin dago pozik pilota batekin edo bestearekin, bikotekide bat egokitu nahiz bestea, han edo hemen jokatu: ez du inoiz bere txikitasunaren umiltasuna galtzen. Berezkoa duelako, ez ikasia, ez antzeztua. Nekez aurkituko duzu bigarren koadroaren barruan hura baino artistagorik; arerioaren asmoa aurreikusi, dantzari airean mugitu, eta eskumuturra bihurrituz goxo eta delikatuki pilota justu behar den tokian uzteko maisu trebeagorik. Baina aurtengoa zuen lehen finala. Zeren eta txapeldun konpletoa izateko ez baita nahikoa artista hutsa izatea, ezpada gizartearen estandarrek agintzen duten gorputz (eta adin) adonisiakoa izatea, Aimarrek edo Irujok bezala: talentua, planta, sinesmena, jarrera. Baina Pablito ez da Pablo, Pablito baizik. Gure txapelik gabeko txapeldun ttattarra.

Lander GARRO Idazlea
BERRIA



**UPV/EHU-N EUSKARAZ IRAKASTEKO GAITASUN AGIRIKO PROBAK
(2013KO EKAINAREN 3A)**

1.- Lander Garro artikulugilearen ustean, ...

- a) Txikiek berezkoa dute ezina, eta horri aurre agiteko txikiekin elkartzen dira, etsita daudelako.
- b) Txikiek gainerakoek baino gehiago erakutsi behar izaten dute, nor izango badira.
- c) Txikiak beti izan dira umilak eta apalak, munduak sekulako bertigoa eta zorabioa eragiten dielako.

2.- Nolakoa da Pablito, artikulugilearen ustez?

- a) Zirikatzaile aparta eta lagun laguna.
- b) Umila, bizitzak horrelakoa izaten erakutsi diolako.
- c) Artistetan artistena frontoiko aurreko koadroetan.

3.- Artikuluan Lander Garrok nahiko garbi uzten du ...

- a) Aimarrek eta Irujok ez bezala, Pablito ez dituela betetzen *txapeldun konpletoaren* estandarrak.
- b) Pablo izan balitz, txapeldun handia izango zela.
- c) Pablito aurtengo bere lehen finala erraz irabaziko zuela min hartu izan ez balu.



UPV/EHU-N EUSKARAZ IRAKASTEKO GAITASUN AGIRIKO PROBAK (2013KO EKAINAREN 3A)

2. TESTUA

Zoriontasunaren pilulak

Justu bere aurrean geratu da adineko gizonezko bat, eta irakurri egin du: denboran atzera egiteko aukera izango bazenu, zer gustatuko litzaizuke aldatzea? Eskolan gehiago ikastea gustatuko litzaizuke? Zeure burua diru gehiago egitera bideratuko zenuke? Agian norbaitez maiteminduko zinateke?

Pentsakor, aurrera egin du.

Emakume afroamerikar bat pasa da gero, eta zerk egiten ditu bilionarioak, zine izarrak eta liderrak zuregandik eta niregandik ezberdin? Garunean indar handiagoa izateak? Talentu handiagoak? Jakinduria handiagoak?, irakurri du. Ezezkoaren keinua egin du buruarekin, eta jarraitu du: pertsona hauek guztiek barruan daukaten boterea aurkitu dute, eta zoriontsu izateko ahalmena desblokeatu. Izan ere, zoriontasunik ezak bikotekidearekin, lagunekin eta familiarekin dituzun harremanei kalte egin diezaieke.

Eserlekuko turistak betaurrekoak jantzi ditu: Ikusi nahi duzu zeure burua gauza gehiago bizitzan lortuz? Diru gehiago eginaz, erlaxatuago sentituz, edo zure lagun eta familiarrekin denbora gehiago pasaz?

Bizitzan zoriontsuen zaren garaia da honako hau, edo gehiago nahi duzu? esaldiari argazkia atera dio mugikorrarekin eskolatik atera berri den ikasleak. Horregatik, erabili orain zoriontasuna lortzeko biderik inteligenteena.

«Hemen daukazu soluzioa», irakurri dut iragarkian letra handiz: «Hartu halako pilula, eta ikusiko duzu nola zoriontsu izango zaren».

Halaxe dira, bai: zoriontasuna lortzeko pilulak. Goizero bat hartzea nahikoa, zoriontsu sentitzeko. Gosariarekin hartzea komeni, zoriontasunak baraurik urdailari minik eragin ez diezaion (zoriontasuna gramotan neurtzen zela ere jakin ez nik, tonto halakoa). Eta handik aurrera, zoriontasunaz egun osoan goza dezakezu.

«Zoriontasun gaindosirik ez izateko, galdetu zure mediku edo farmazeutikoari» jartzea bakarrik falta zuen. Harrapazank!



Universidad Euskal Herriko
del País Vasco Unibertsitatea

EUSKARA ZERBITZUA

**UPV/EHU-N EUSKARAZ IRAKASTEKO GAITASUN AGIRIKO PROBAK
(2013KO EKAINAREN 3A)**

4.- Testuaren arabera, ze ondorio ditu zoriontsu izateak?

- a) Giza harremanak errazten ditu.
- b) Barruko boterea askatzen du.
- c) Garuneko indarra bizkortzen du.

5.- Testuak dio pilulak hartu baino lehen, medikuari edo farmazeutikoari galdetu behar zaiola. Zergatik dio hori artikulugileak?

- a) Gaindosiak ondorio kaltegarriak izan ditzakeelako.
- b) Artikulugileari dena adarjotze bat iruditzen zaiolako.
- c) Baraurik hartuta, urdaileko mina eragin dezaketelako.

6.- Zein da artikulua honetan Gari Udaberen asmoa?

- a) Atzera egiterik balego zer aldatuko genukeen amets egitea ona dela esatea.
- b) Zoriontsu izatea posible eta erraza dela erakustea.
- c) Zoriontsu izateko zenbaitek erabiltzen duen arinkeria salatzea.

UPV/EHU-N EUSKARAZ IRAKASTEKO GAITASUN AGIRIKO PROBAK (2013KO EKAINAREN 3A)

3. TESTUA

Alkoholzaleak

Alkohola gizakiaren laguna izan da milaka urtetik hona. Denek ez dute gustuko eta denek ez dute onartzen, baina asko gara alkohola duten edariak maite ditugunak. Baina gizakiok ez gara horretan bakarrak. Gainerako primateei eta beste ugaztun herbiboroek hartzituriko fruituak gustatzen zaizkie, horiek jateko aukera dutenean. Alkohola fruitu helduek daukate, elikagaietan aberatsak diren fruituek, eta jateko gogoan duen eragin sustagarria oso onuragarria da zenbait belarjalerentzat, janari-iturri iraungikorra dutenentzat batez ere. Hori dela eta, pentsatu behar dugu fruitu alcoholdunak dituzten landareen eta horien kontsumitzaileen artean koeboluzio-prozesu bat gertatu dela, eta prozesu horretan, alde bakoitzak —landareak eta animalia kontsumitzaileak— moldaera osagarriak garatu dituztela. Hortaz, landareek fruituetan edo lore-nektarrean zenbat eta alkohol gehiago ipini, herbiboroek alkohola onartzeko eta metabolizatzekeo hainbat eta ahalmen handiagoa garatu. Animalientzako onura zein den esana dago, eta landareek horrela polinizazioa eta hazien sakabanatzea erraztea lortzen dute.

Duela urte pare bat kontu honi buruzko ikerketa interesgarri bat argitaratu zen. Malaysiako oihanetako palmondo (*Eugeissona tristis*) eta satitsu zuhaiztar baten (*Ptilocercus lowii*) arteko harremanaren ezaugarriak aztertu zituzten ikerketa horretan. Palmondoaren loreak % 3'8ko alkohol-edukia duen nektarra sortzen du bere legamiei esker. Satitsuei (eta, neurri txikiagoan, *Nictycebus coucang* loris geldoei) loreetara heltzen uzten ez zitzaienean, palmondoak normalean ekoizten zuen fruituen erdia ematen zuen. Beraz, animalia horien ohiko elikatze-jarduerak ez murritztea funtsezkoa omen zen palmondoen fruitu kopurua mantendu ahal izateko. Ikerketan behatutakoaren arabera, gautarrak diren ugaztun txiki horiek bi orduz elikatzen ziren nektarrez gauero. Hortaz, nektarra zen, alde nabarmenarekin gainera, haien janari-iturri nagusia. Zoritxarrez, satitsuek balioesten dutena alkohola ote den jakiterik ez dago, nektarraren beste zenbait osagai izan baitzitezkeen satitsuek benetan maite zutena. Nolanahi ere, alkohola onartzeko ahalmen handia garatu dute. Begira zer neurritan onartzen duten alkohola: tamainaren eragina zuzenduz gero, bi orduko janaldi horietan satitsuek harturiko alkohola nahikoa eta sobera izango litzateke gugan izugarritzko mozkorra eragiteko.

(J.I. Pérez & M.B. Urrutia,
Animalien aferak, ZIO 14, 203-205 or.)



**UPV/EHU-N EUSKARAZ IRAKASTEKO GAITASUN AGIRIKO PROBAK
(2013KO EKAINAREN 3A)**

- 7. Ondoko esaldietatik, zein da egiazkoa, testuaren arabera?**
- Primate guztiek eta ugaztun herbiboro guztiek dute gogoko alkohola.
 - Ezin da jakin primateei eta ugaztun herbiboroek alkohola gustatzen zaien; izan ere, ez dute hartzituko fruituak jateko aukerarik izaten.
 - Hainbat gizakik ez ezik, gainerako primatuek eta ugaztun herbiboroek ere gustuko dute alkohola.
 - Gizaki guztiek dute gogoko alkohola, baina denek ez dute onartzen.
- 8. Fruitu alkoholdunak dituzten landareen eta landare horiek kontsumitzen dituzten animalien arteko koeboluzioan...:**
- Landareek moldaera batzuk garatu dituzte, eta animaliek beste batzuk, elkarrekin zeriak handirik ez duten moldaerak.
 - Ez dago daturik pentsatzeko koeboluzio-prozesu bat gertatu dela.
 - Bai landareek eta bai animaliek moldaera batzuk garatu dituzte, elkarren osagarri direnak.
 - Landareek fruituetan alkohol gutxi ipini arren, animaliek izugarritzko gaitasuna garatu dute alkohol hori metabolizatzeko.
- 9. Testuan aipatzen den berriki egindako ikerketa dela eta, zein da zuzena ondoko esaldietan?**
- Palmondoaren loreak, bere legamiei esker, nektarra sortzen du, eta nektar horrek % 8,3 alkohol-edukia du.
 - Palmondoaren fruitu-ekoizpena erdira jaisten zen satitsuek haren loreetara heltzen ez zirenean.
 - Satitsuen elikatze-jarduerak murriztuz gero, palmondoen fruitu kantitateak gora egiten zuen.
 - Delako ikerketa horretan honako hau aztertu zen: satitsu arruntaren eta Malaysiako oihanetako palmondoaren arteko harremanaren ezaugarriak.
- 10. Ondoko esaldi hauetan, zein da egiazkoa, ikerketa interesgarri horren arabera?**
- Aipatzen ari garen ugaztunen janari-iturri inportanteena nektarra da.
 - Ikerketaren arabera, nahiko argi geratu da satitsuek nektarrean gehien maite dutena alkohola dela.
 - Satitsuek alkohola ongi onartzen duten arren, janaldietan hartzen duten alkohola hain da handia, ezen batzuetan mozkorturik amaitzen baitute.
 - Satitsu zuhaiztarrek eta pertsonok antzeko gaitasuna dugu alkohola onartzeko.



Universidad Euskal Herriko
del País Vasco Unibertsitatea

EUSKARA ZERBITZUA

**UPV/EHU-N EUSKARAZ IRAKASTEKO GAITASUN AGIRIKO PROBAK
(2013KO EKAINAREN 3A)**

IRAKURRIAREN ULERMENA: ERANTZUN-TAULA

1	2	3	4	5
6	7	8	9	10

UPV/EHU-N EUSKARAZ IRAKASTEKO GAITASUN AGIRIKO PROBAK (2013KO EKAINAREN 3A)

3. ARIKETA: IDAZLANA

Egin behar duzun idazlanak **250 hitz** izan behar ditu gutxienez. Idazlana egiteko **A** edo **B** hautatu behar duzu, eta, aukera horietako bat garatzeko, **aukeran dituzun gaietako bat hartu behar duzu (nahi duzuna, zerrenda osoan). Ezinbestekoa da gai horri ongi lotzea idazlana garatzean.** Idazlana euskara batuan egin behar da.

A) Unibertsitateko irakasle-talde bat aldizkari bat ari da argitaratzen unibertsitateko ikasleentzat, baina artikulu faltan egoten dira maiz. Hori dela eta, zure jakintza-arloko gairen baten berri eman dezazun eskatu dizute artikulu batean. Gogoan izan ikasleentzat ari zarela idazten, zabalkunde-lanean (ez testu akademikoa prestatzen). Hala nahi izanez gero, zeure iritzia ere plazaratu dezakezu, aukeratu duzun gaiaren inguruan.

B) Eskolako apunteak prestatzen ari zara eta gai baten inguruko azalpenak idatziz eman nahi dituzu, ikasleen eskura jartzeko. Gai bat orokorki azaldu eta hainbat zehaztasun emango dituzu, edo gai horren azpiko gai zehatzen bat polikiago aztertuko duzu, ikasleei azalpen argiak emateko.

ARLOA	GAIK (zure arloko bi gaietako bat aukeratu behar duzu)	
Arkitektura	Donostiako Kursaal auditorioa.	Azken urteetako Bilboko arkitektura
Artea	Tresna eta teknika berriak gaurko artean: arte digitala, argazkigintza...	Zinemagintza arte gisa.
Biologia	Badu garrantzirik biologoen lanak gizartearen aurrerapenari eta hobekuntzari begira?	Herentzia biologian.
Ekonomia	Munduko ekonomiaren ezaugarri orokorrak.	Enpresaren finantza-iturriak.
Filologia	Emakumea eta literatura	Latinetiko hizkuntzak: hizkuntza erromanikoak.
Filosofia	Filosofia garaikidearen Historia.	Zientzia eta zientziaren Filosofia.
Fisika	Grabitazio unibertsalaren legea.	Oszilazioak: higidura motak.
Geografia	Atzeritarrak Europan gaur egun.	Geografiak gizakien bizimoduan duen eragina.
Geologia	Erregai fosilak.	Lurpeko urak.
Gizarte-zientziak	Zer aztertzen du soziologiak?	Marxismoa eta anarkismoa.
Heziketa fisikoa	Gorputz-heziketa, eskola-kirola eta kirol-errendimendua: unibertso bera?	Hirugarren adina eta kirola.
Historia	Estatu Batuak eta Sobiet Batasuna gerra hotzaren garaian.	Gerra Zibila Euskal Herrian.
Informatika	Elektronika digitala: memoria motak.	Segurtasuna informatikan.
Informazioa	Liburu-irakurgailu digitalak eta paperezko liburuak.	Publizitatea irrati eta telebista publikoetan.
Kimika	Disolbagarritasun-oreka.	Lotura ionikoa, kobalentea eta metalikoa.
Matematika	Funtzio trigonometrikoak.	Segidak eta serieak.



Universidad Euskal Herriko
del País Vasco Unibertsitatea

EUSKARA ZERBITZUA

**UPV/EHU-N EUSKARAZ IRAKASTEKO GAITASUN AGIRIKO PROBAK
(2013KO EKAINAREN 3A)**

Osasuna	Osasun arloko industria kimikoak eta farmazeutikoak.	Osasunean diru-murrizketak.
Pedagogia	Animalien, landareen eta gizakiaren arteko harremanak.	LOMCE hizpide azkenaldian.
Psikologia	Atxikimendua lehen haurtzaroan.	Nola antolatzen du psikologoak elkarrizketa bezero batekin?
Teknologia	Aeronautikaren historia.	Energia berriztagarriak.
Zuzenbidea	Politikariak eta bankariak epaitegietan.	Zuzenbide forala.



Universidad Euskal Herriko
del País Vasco Unibertsitatea

EUSKARA ZERBITZUA

**UPV/EHU-N EUSKARAZ IRAKASTEKO GAITASUN AGIRIKO PROBAK
(2013KO EKAINAREN 3A)**

ARLOA:

IDAZLANAREN IZENBURUA (GAIA):

AUKERA (A edo B):



Universidad Euskal Herriko
del País Vasco Unibertsitatea

EUSKARA ZERBITZUA

**UPV/EHU-N EUSKARAZ IRAKASTEKO GAITASUN AGIRIKO PROBAK
(2013KO EKAINAREN 3A)**



Universidad Euskal Herriko
del País Vasco Unibertsitatea

EUSKARA ZERBITZUA

**UPV/EHU-N EUSKARAZ IRAKASTEKO GAITASUN AGIRIKO PROBAK
(2013KO EKAINAREN 3A)**



Universidad Euskal Herriko
del País Vasco Unibertsitatea

EUSKARA ZERBITZUA

**UPV/EHU-N EUSKARAZ IRAKASTEKO GAITASUN AGIRIKO PROBAK
(2013KO EKAINAREN 3A)**

**EZ IDATZI EZER ORRIALDE HONETAN
AZTERTZAILEEK ERABILTZEKO ORRIA DA**

UPV/EHUko EUSKARA PROBA. ZUZENKETA ORRIA (1):

AZTERKETARIA: **NAN:**

Zuzenketa-orria

Aukera anitzeko galderen proba

Zuzenak:	Okerrak:	Zuriak:
GAI (≥ 32)		EZ GAI (< 32)

Irakurmena

Zuzenak:	Okerrak:	Zuriak:
GAI (≥ 6)		EZ GAI (< 6)

Idazlana

GAI	EZ GAI
-----	--------

AZTERKETA IDATZIA: GAI / EZ GAI

Oharrak

Lehen zuzentzailea

Bigarren zuzentzailea

AHOZKO AZTERKETA

GAI	EZ GAI
-----	--------

Oharrak

1. aztertzailea

2. aztertzailea

3. aztertzailea


**UPV/EHU-N EUSKARAZ IRAKASTEKO GAITASUN AGIRIKO PROBAK
(2013KO EKAINAREN 3A)**
**UPV/EHUko EUSKARA PROBA. ZUZENKETA FITXA (2)
<EZGAI> DIREN AZTERKETETAN BETETZEKO**

 Azterketaria:
 (Markatu X batekin azken zutabeen zein arlotan ez den gai azterketaria)

IDATZIA

Atala	Oharrak	Irizpideak (AKTA)	(X)
Edukia	ez dio heldu emandako gaiari	4.2.3. (a)	
Moldea		4.2.3. (b)	
	esaldi sinpleegiak; gutxi idaztea		
	erregistro desegokia		
	joskera desegokia		
	lexiko desegokia		
	lanaren egituraketa eskasa (kohesioa eta koherentzia)		
Zuzentasuna		4.2.3. (c)	
	ortografia gaizki		
	euskara batua ez ezagutzea edo errespetatzea		
	deklinabideko huts nabarmenak		
	aditza gaizki erabilia		
	joskera okerra		
Akatsak		4.2.3. (d)	
	mezua ulergaitz bihurtzen dute		
	akats larriak eta ugari		
Beste batzuk			

Oharrak:

AHOZKOA

Atala	Oharrak	Irizpideak (AKTA)	(X)
Azalpena		4.3.2. (1.a)	
	jario falta		
	ez du azalpena ongi antolatzen		
	ez da gai azalpen zehatzak emateko		
Zuzentasuna		4.3.2. (2.a)	
	egitura okerrak edo traketsak erabiltzen ditu		
	ahoskera eskasa		
Moldea		4.3.2. (3.a)	
	ez da gai euskara batuan jarduteko		
	ez da gai hizkera zaindua erabiltzeko		
Beste batzuk			

Oharrak: